

6. Funtsezko baliabideak

Funtsezko baliabideak arakatzen baditugu 4 hildo ezberdinetan sailkatu ditugu:

Baliabide Ekonomikoak

Proiektuak aurrera egin dezan eta beharrezko baliabideak izan ditzan, diru-baliabideak beharrezkoak dira:

- ☐ **Hasierako Inbertsioa:** Bazkideen artean hasierako diru-kopuru handi bat jarriko da, proiektuaren aurrera egiteko.
- ☐ **Prestamoak/Kreditua:** Prestamo baten bidez hasierako gastu guztiak finantzatu ahal izango dira, hala nola ekipamenduak, materialen stocka, softwarea eta kudeaketa gastuak. Helburua da enpresa martxan jartzea modu seguruan, bazkideek jarduera nagusian arreta osoa jar dezaten eta operazioak arazorik gabe abiatu ahal izatea.
- ☐ **Diru-laguntza Publikoak:** Enpresak I+G eta berrikuntzarako diru-laguntzak eskainiko ditu, inbertsioak murrizteko eta arrisku ekonomikoa arintzeko. Laguntza horiek teknologia berriak garatzeko eta merkatuan lehiakortasuna handitzeko aukera ematen dute.

Baliabide fisikoak:

Lantegia/Showroom: Lonja bat izango dugu beharrezko material guztiak erosiko ditugu eta gure tailerrean motorra, poleak, kristalak, markoak eta gainerako osagaiak muntatuko ditugu. Horrela, produkzio-prozesu osoa gure instalazioetan kontrolatu ahal izango dugu eta lanaren kalitatea bermatu. Beste alde batetik, erakusgela (Showroom) funtzioa izango du, non bezeroek produktua instalatuta ikusi ahal izangoduten.

<https://www.idealista.com/inmueble/94271841/>

Baliabide intangibleak: Enpresaren kudeaketa administratiboa kanpoko gestoria batek egingo du, eta materialen stocka gure kabuz kontrolatuko dugu SAP bezalako ERP aplikazio baten bidez. Horrek materialen sarrera-irteerak eta hornidura-planak modu eraginkorrean kudeatzea ahalbidetuko du. Gainera, garatzen ditugun produktu berritzaileak babesteko patente bat lortzea aurreikusten da, eskubide eksklusiboak bermatzeko. Patentea Espainian 700–1.200 euro artean kostatzen da, eta agente baten bidez 1.500–3.000 euro ingurura igo daiteke; babes maila europakoa edo nazioartekoa nahi izanez gero, 10.000 eurotik gorakoa izan daiteke.

Baliabide humanoak: Enpresa honetan, hasierako fasean, bazkide sortzaileak izango gara lan nagusia aurrera eramango dugunak, bai arlo

teknikoan bai kudeaketan, kostuak optimizatu eta jardueraren kontrol zuzena izateko. Jarduera handitzen den heinean, I+G arloko ingeniari edo teknikari baten laguntza aurreikusten da, prozesuak hobetzeko, teknologia berriak aplikatzeko eta zerbitzuen kalitatea handitzeko. Era berean, instalazio eta mantentze-lanetako teknikari pare bat kontratatzea aurreikusten da, eguneroko lan teknikoak modu eraginkor eta profesionalenean betetzeko, bezeroei zerbitzu azkar eta fidagarria eskainiz.